



SAN ANTOLIN, ANDRA MARI ETA ARDO-ZAHAGIA

Plentzia, 2017ko abuztuaren 30



Ohitura ezaguna da Plentzian, San Antolinen izenean ospatzen diren herriko jaien hasieran Agirreko Andra Maria ermita bisitatzen dela. Plentziako herrigunetik hurbil, baina lurrez Gorizko elizatean dago ermita hori.



Agirreko Andra Maria ermita

Jose Maria Hormazak udal agirietatik jaso duenez, XVIII. mendetik behintzat, San Antolin bezperan Andra Marira igotzeko ohitura egon da baita ‘santuaren kaperan’ salbea kantatzeko ere. Itxura denez, San Antolin irudia buru zuen prozesio horrek 1940ko hamarkadara arte iraun zuen.

Gaur egun, jaiei hasiera ematen dien txupinazoaren ostean, Andra Maria ermitarainoko ibilalditxoa egiteko ohiturari eusten zaio, baina santuaren irudiaren ordez Antolintxu pertsonaia doa prozesioaren buru.

Gurutzi Arregi ikertzaileak dioenez Astillerotik abiatuta, Andra Mari ermitaraino doa segizioa, Antolintxu esaten zaion panpina hartuta; zahagi bete ardo ere eramaten da bertaratutakoen artean banatzeko.

Urte batzuetatik hona, Antolintxu horrez gain Madalentxu pertsonaiak ere laguntzen dio segizioari. Biek, Isuskitzako bikote baserritarra irudikatzen dute, itsasadarrerik behera datorrena.

Datu historikoek, herriak ematen dituen azalpenekin bat egiten ez badute ere, ahoz aho dabil ohitura horien jatorria gorlitztarren eta plentziarren arteko mus-partida batean dagoela. Partida horretan Gorlizkoek



zahagi bat ardo jokatu zuten eta Plentziakoek euren udalerrikoak ziren terreno batzuk, hain zuen ere Andra Maria ermita zeudenak.

Gorlizko jokalariek irabazi zuten partida, eta Plentziakoek Gorlizkoei eskatu zieten urtero San Antolin irudia San Antolin zaindariaren irudi barik geratu ziren.

Herriko zaindaria eta jaiak ez aldatzeko, Plentziakoek Gorlizkoei eskatu zieten urtero San Antolin irudia Plentziara eraman ahal izatea, herriko jaiet irauten zuten egunetarako bada ere.

Mesede horren trukean, Plentziakoek San Antolin jaien hasieran, Gorlizkoei zahagi bat ardo eramateko konpromisoa hartu zuten.

Gurutzi Arregik azaltzen duenez, Plentzia eta Gorlizen arteko mugarrietako bat Uruburun egon zen, Kristoko ermitaren ondoan. Leku horretan eskuratzten zieten santua Gorlizkoei Plentziakoei.

Bestalde, hau ere azaltzen du: ‘tradizioz esaten da Gorlizko alkate batek dohaintzan eman ziela Plentziakoei San Antolinen irudia, zahagi bat ardoren truke’.



Ardo zahagia

Umetan Aniceto Duo aititari entzundako azalpenetan oinarriturik, Gonzalo Duok esan digu, artean ibiltokirik eta Astilleroko plazarik ez zegoenean, San Antolin en izenean egiten zen erromeria Gamiz (Gaminiz) inguruan egiten zela. Lur horiek Gorlizko udalerrikoak izaten jarraitzen zuten, Bizkaiko jaunaren jabetzakoak izan zirelako.

Jaia animatu nahian, handik gertu Gorlizko bentari bat kokatu zen, Plentziako tabernarien amorragarri, izan ere Plentziako ardotegetan baino merkeago saltzen zuen ardoa.

Jai batzuetan, plentziarrek herriko ardo izakinak agortu zituzten, ez baina parrandan jarraitzeko gogoa. Egoera ikusirik, Gorlizko bentariari zenbait zahagi ardo eskatu zizkioten eta hark, zegozkion zergak ordainduta, azkar eraman zituen Gamizko bentara. Baino ardoa Gamizera heldutakoan, gazteek ez zuten behar besteko dirua batzerik izan eskaera ordaintzeko.

Gauzak horrela, baten batek zorioneko eta infernuko ideia izan zuen: San Antolin en irudia saltza Gorlizkoei, zahagiak ordaintzeko besteko diruaren truke. Gaia “konponduta”: goizean inork ez zuen ezer gogoratuko, baina santuaren irudia Gorlizen zegoen ordurako.

Gonzalo Duok berak adierazi digunez, San Antolin en irudia Kristo ermitan egon zitekeen, eskuragarri izan zutelako, eta parroquia erabat itxita egongo zelako. Egia esan, posible da irudia Magdalena parrokiatik Kristoko ermitara eramatea, Kristo eskaileren ingurua orduan arrantzaleen auzoa zelako, eta hasiera batean euren omenez egin zitekeelako zaindariaren lekualdaketa eta jaia.

Duoren arabera, San Antolin en irudia Andra Maria ermitako sakristian zegoen. Berak gogoan duenez, irudia ez zen heltzen metro erdira, diakono jantzia zeraman, erropilla erromatarra eta palmatxo bat eskuan; segur aski XVIII. mendean egindakoa zen. “Oso lasai zegoen, ezerk arduratuko ez balu bezala... azken batean: Plentzia eta Gorliz herri anaiak dira, euren artean edonola moldatu arren”.

Gaur egun, San Antolin en irudia Magdalena parroquia dago gordeta eta zaharberritzen ari dira.



SAN ANTOLÍN, ANDRA MARI Y EL PELLEJO DE VINO

Plentzia, 30 de agosto de 2017

Es tradición conocida en Plentzia que las fiestas locales en honor a San Antolín comiencen con una visita a la ermita de Andra Mari de Agirre, próxima al casco de la villa, pero en término de la vecina anteiglesia de Gorliz.

Según recoge José María Hormaza en documentación municipal, al menos desde el siglo XVIII, la víspera de San Antolín se subía en procesión a Andra Mari y se cantaba una salve 'en la capilla del santo'. Al parecer esta procesión presidida por la imagen de San Antolín perduró hasta la década de 1940.

En la actualidad, tras el txupinazo que da comienzo a los festejos, sigue manteniéndose la costumbre del paseo hasta la ermita de Andra Mari, pero en lugar de la imagen del santo, es el personaje denominado Antolintxu quien preside la procesión.



Madalentxu eta Antolintxu

Como indica la investigadora Gurutzi Arregi, partiendo del Astillero, la comitiva se traslada hasta la ermita de Andra Mari acompañando a un muñeco al que llaman Antolintxu, además de portar un pellejo de vino que se reparte entre los asistentes.

De un tiempo a esta parte, además de Antolintxu, también acompaña la procesión el personaje femenino Madalentxu, representando el papel de pareja baserritarra llegada de Isuskitza por la ría.

Aunque los datos históricos no se corresponden exactamente con las explicaciones populares, estas sitúan el origen de la costumbre en una partida de mus entre los de Gorliz y los de Plentzia, en la cual se jugaron a modo de apuesta un pellejo de vino de Gorliz contra unos terrenos en jurisdicción de Plentzia, precisamente aquellos en los que se levanta la ermita de Andra Mari.

Fueron los jugadores de Gorliz quienes ganaron la partida de modo que, para su desgracia, los de Plentzia no solo perdieron los terrenos de la ermita, sino que se quedaron sin la imagen del patrón San Antolín, que se encontraba en dicha ermita.

Con el fin de no verse obligados a cambiar de patrón y de festejos, los de Plentzia solicitaron a sus vecinos de Gorliz que les permitiesen cada año trasladar la imagen de San Antolín a la villa de Plentzia, aunque solo fuera durante los días de las fiestas patronales.

A cambio de ese favor, los de Plentzia adquirían el compromiso de entregar un pellejo de vino a los de Gorliz al inicio de las fiestas de San Antolín.

Según precisa Gurutzi Arregi, uno de los mojones divisorios de Plentzia y Gorliz debía de ubicarse en Uruburu, junto a la ermita del Cristo, siendo en ese lugar donde se hacía la transferencia del santo por parte de los de Gorliz a los de Plentzia.



Kristo ermita



LARRAGANENA

Plasentia de Butrón Museoko Etnografia Taldea

Grupo de Etnografía del Museo Plasentia de Butrón

También indica que 'tradicionalmente se dice que fue un alcalde de Gorliz el que antaño donó la imagen de San Antolín a los de Plentzia a cambio de un pellejo de vino'.

Según testimonio directo de Gonzalo Duo, basado en explicaciones oídas en su niñez a su abuelo Aniceto de Duo, cuando todavía no había paseos ni plaza del Astillero, la romería de tarde y noche en honor de San Antolín se celebraba en las proximidades de Gamiz, pequeña demarcación que seguía perteneciendo a Gorliz, por haber sido propiedad del señor de Bizkaia.

Con el fin de animar la fiesta, se había instalado cerca de allí un ventero gorlitzarra que, para furia de los taberneros de la villa, vendía el vino más barato que en las tascas de Plentzia.



Romería en el Astillero, año 1907


En ciertas fiestas, los plentziarras llegaron a agotar las existencias de vino de la villa, pero no sus ganas de continuar la juerga. Estudiada la cuestión, pidieron cierta cantidad de pellejos de vino al ventero de Gorliz, que los trasladó rápidamente a la venta de Gamiz, tras abonar las tasas correspondientes. Pero una vez llegado el vino a Gamiz, los mozos y mozas no consiguieron reunir dinero suficiente para pagar el pedido.

Ante tal situación, alguien tuvo la feliz e infernal idea de vender la talla de San Antolín a los de Gorliz, a cambio del dinero necesario para pagar los nuevos pellejos de vino. Asunto 'solucionado': por la mañana nadie recordaría nada, pero la talla del santo ya estaba en Gorliz.

El propio Gonzalo Duo indica que la talla de San Antolín bien pudiera haber estado en la ermita del Cristo, razón por la que era accesible, dado que la parroquia estaba cerrada a cal y canto. Ciertamente, sería posible que la imagen se trasladase de la parroquia de la Magdalena a la ermita del Cristo, pues la zona de las escaleras del Cristo constituía entonces el barrio de pescadores, a quienes podría estar dedicado inicialmente el traslado del santo patrón y su festejo.

Según Duo, la talla de San Antolín se hallaba en la sacristía de la ermita de Andra Mari y se trataba, según cree recordar, de una imagen de menos de medio metro, ataviada como diácono, con ropilla romana y una palmita en la mano, seguramente obra del s. XVIII. 'Estaba tan fresco, como si no le importara nada... Total: Plentzia y Gorliz, son pueblos hermanos, se lleven como se lleven'.

En la actualidad, la talla de San Antolín se custodia en la parroquia de la Magdalena y se encuentra en proceso de restauración.



Plasentia de Butrón Museoko Etnografia Taldea
Grupo de Etnografía del Museo Plasentia de Butrón



Plasentia de Butrón Museoa
Museo Plasentia de Butrón



Plentziako Udala
Ayuntamiento de Plentzia